



## Azalpena HE1 Txakur-kakak

### I. ENTZUNDAKOAREN EDUKIA

Txakur kakak. Jabeek txakurrak kalera atera, eta bertan uzten dute askotan jaso gabe, eta gero beste norbaitek zapaldu dezake eta oroigarria etxera eraman; ez da oso atsegina izaten hori. Kasu hori Madrildik dator, Madrilgo Brunete herrian erabaki dute kalean jaso gabe geratzen diren kaka horiek txakurraren jabeari bere etxera helaraztea. Nola egin duten? Nola jakin kakak, gorotzak norenak diren? Ba, herrian 20 bat boluntario banatu zituzten. Horietako bakoitzak txakurrak kaka egin eta jabeak ez zuela jasotzen ikusten zuenean, jabearengana hurbildu eta disimulu handiz galderak egiten zizkieten: "Bai txakur polita!, zer arrazakoa da?" Galdera horien bidez, eta jabeari izena galdetu gabe, informazioa lortu eta gero izenak udaleko erregistroan lortu zituzten. Eta gero jabeek etxean jaso zuten oroigarria, plastikozko poltsa batean, eta poltsa kartoizko kutxa batean sartuta. 147 pakete bidali zituzten -eta 147 gorotz- 147 jaberri. Opariarekin batera abisua ere bai: "Hurrengoan harrapatzen bazaitugu, isuna jarriko dizugu, 30 eta 300 € artean. Kanpainak sekulako arrakasta izan du eta brunetearrek antzeman dute garbitasuna. Orain kaleak garbiago dauzkate.

Hainbaten iritziak bildu dira:

- Horretaraino iristea iruditzen zait oso tristea. Nik txakurrik ez daukat, asike, ez nuke nahi haien txakurren kakak jaso eta haien etxeetara bidali behar izatea. Baina, bueno, balio izan baldin badu, pozten naiz haiengatik. Azken urteetan asko aldatu da, nire ustez. Batez ere, jende asko ikusten dut jasotzen, eta amorru handia ematen dit [lurrean] dagoenean, baina gutxiago dago, nabari da. Nik multak jarriko nituzke, benetan. Txakurra daukanak hartu dezala ardura.
- Ba, nahiko makiavelikoa da. Nik ez dakit ze puntutaraino, % 70 jaitsi bada, ba, bueno, efizientea da, hartutako neurria, baina niri pixka bat iluna iruditzen zait hartutako neurria eta, orduan, ez zait gustatzen. Ikusi dut jendeak bere poltsa ateratzen duela eta batzen duela kaka, ez beti. Baina, noski, aurkitzen dituzu kakak hirietan, orduan, argi eta garbi dago guztiek ez dutela egiten, ezta?  
Baina nik ez dakit zer puntutaraino, benetan, funtsezko gai bat den edo benetan *pijada* bat den. Ez dakit zer puntutaraino, hain den garrantzitsua. Kaka dago, ba, kaka dago, ez dakit nola esan. Txorien kaka ere badago eta kaka badaukagu eta kaka egiten dugu, ez dakit.
- Ni ez naiz isunen aldekoa. Ez dakit zenbateraino den garrantzitsua gai hau, ematen du *pijada* bat dela.
- Iruditzen zait ekimena modu erradikalagoan egin beharko litzatekeela. Kakak txakurrek ez dituzte uzten kale erdian kutxa baten barruan, ezta? Hor besterik gabe. Hori espazio publikoa da, denok konpartitzen duguna. Nik horri sekulako garrantzia ematen diot, baina, batez ere, horregatik: igual huskeria eman lezake, baina espazio publikoa denona da eta denok zaindu behar dugu. Zure etxean egin nahi duzuna, baina denon etxean -hau da, kalean- ezin duzu edozer gauza egin.  
Madrilen arazoa, gainera, igual Euskal Herrian baino latzago bihurtu da arrazoi batengatik: udalak ez du inbertitzen garbiketan. Lehen espaloiak garbitzen ziren astean behin; orain inoiz ez. Orduan, euririk egiten ez badu, eta hori Madrilen oso litekeena da, hor pilatzen dira eta lehortu, eta pilatu bata bestearen gainean; eta horrela gabiltza. Horregatik makiaveliko bihurtu naiz.
- Batez ere arriskua dago parkeetan eta belarra dagoen tokietan eta umeak jolasten ibiltzen diren tokietan, eta derrepentean aurkitzen duzu, ba, aurkitzen duzuna, ezta? Orduan, ezin duzu kalean hizketan lasai hizketan gora begira joan, joan behar duzu behera begira eta sigi-saga joan behar duzu apartatzen, edo bestela, badakizu zer dagoen. Orduan, ni ibili naizen tokietan ikusten ditut batzen, baino gehiago ikusten ditut txakurra askatu eta jaramonik ez egiten, e! Hezkuntzak nahiko beharko luke; eta ez bakarrik txakurrak kaka egiten duenean, txakurra eskuan daramazunean, batez ere, tamaina bat baldin badauka, txakur hori zuk adina besteek edo ondokoak maite beharrik ez daukate. Eta jende askori txakurrak pixka bat atzera-edo eragiten die, edo beldurra ematen die. Orduan, zuk txakurra bera ere, animalia bera ere, animaliak ez dauka errurik,



pixka bat distantzia batera gorde behar duzu beste pertsonengandik. Edozein txakur etortzen zaizu aurrera eta "ez, ez du ezer egiten". Eta zer? Berak esan dizu ez duela ezer egiten edo nola da hori?

## II. ENTZUNDAKOTIK ABIATUTA

- (Kaletik dabilzan txakurrekin) jabeak zuzen jokatzeko duela uste duzu?
- Zein da irtenbiderik onena, zure ustez?



## Azalpena HE1 Txakur-kakak

Txakurrek kaleetan sortzen dituzten arazoei buruzko elkarrizketa entzungo duzu.

Entzun ahala, hartu oharrak eta osatu eskema. Eskema erabiltzeak informazioa antolatzen eta azalpen argia egiten lagunduko dizu

### 1. SARRERA:

### 2. GARAPENA: jendearen iritziak

-

-

-

-

-

### 3. AMAIERA: